DEBAGOIENA: *Lapurretak bailarako etxeetan* /3

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2000ko abenduaren 15a

I. urtea • 3. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka2a
Euskadi Gaztea-ko entzuleek Debagoieneko taldeak saritu dituzte

Kirolak
Igone Elejalde, parapenteko txapelduna /10

Herriz herri
Clara Ezkurra, beatifikatuko duten lehen mondragoetarra /5

"Nire esku balego, debekatu egingo nuke eskualdean lantegi gehiago egitea"
JUAN ZELAIA /9

Jesus Catania, MCCko lehendakari berria

Erabakia gaur hartu da, baina datorren urte amaiera arte ez du Antonio Cancelo ordezkatuko

Euskal Herriko kooperatiba talde handieneko hirugarren lehendakaria izango da

Jesus Catania altsasuarrak ordezkatuko du Antonio Cancelo MCCren lehendakaritzan. Horixe erabaki du gaur goizean MCCren Kongresuko Batzorde Iraunkorrak.

*Goienkaria*k jakin izan duenez, Kongresuko Batzorde Iraunkorrak berretsi egin du azken egun hauetan hartu den erabakia. Hasieran lau ziren Antonio Cancelo ordezkatzeko hautagaiak, laurak MCCko dibisio buruak: Jose Mari Aldekoa autogintzakoa, Juan Mari Otaegi finantzariokoa, Jesus Catania etxekoa eta Juan Luis Olasolo osagietakoa. Denborak aurrera egin ahala, baina, Jesus Catania indartu da hautagai nagusi moduan.

Jesus Catania orain dela 58 urte jaio zen Altsasun, baina Aretxabaletan bizi da aspaldi, emaztea eta bi seme-alabarekin: Elisa, 29 urtekoa eta Mikel, 15ekoa.

JESUS CATANIA
Industria ingeniaria. Altsasu (Nafarroa), 1942. Aretxabaletan bizi da. MCCko Kontseilu Orokorreko eta Fagor Elektratresnak saileko hainbat enpresaren Administrazio Kontseiluko kidea

Madrilen ikasi zuen Industria Ingeniaritza eta gaur egun MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakariordea da eta Fagor Elektratresnak-eko hainbat filial eta enpresatako adminsitrazio kontseiluetako kide. Zuzendaritza karguak bete izan ditu Copreci, Ulgor, Ikerlan eta Fabrelec-en.

MCC taldeko hirugarren lehendakaria izango da. Lehena Javier Mongelos (1992-1995) izan zen. Bigarrena, berriz, Antonio Cancelo (1995-2001). Izan ere, Cataniak ez du kargua hartuko datorren urtearen amaiera arte. Datorren urte osoa Antonio Cancelorekin batera egingo du lan, transizioa prestatzen.

Egun hauetan Argentinan izan da Jesus Catania. Gaur goizean, ostera, Berriatuan izan du bilera, MCCko Kongresuko Batzorde Iraunkorrak lehendakari izendatu duenean. /3

Hiru liburu kaleratu dira aste honetan bailaran: Arrasaten, Aretxabaletan eta Antzuolan

Hiru liburu kaleratu dira aste honetan Debagoienean. *Jesus Peña idazle atxabaltarra* izenburukoa eguenean aurkeztu zen Aretxabaletan. 1914an jaioa, 19 urte zituela hainbat aldizkaritarako hasi zen idazten Jesus Peña. *Aitza* gaitzizenez sinatzen zituen artikuluak eta gehientsuenak Aretxabaletako berrien ingurukoak ziren. Bestalde, Josemari Velez de Mendizabal idazle arrasatearraren azken lana ere eguen iluntzean aurkeztu zen. *Bizi izan juat* izeneko liburuan 30eko hamarkadako Arrasate zelakoa zen kontatzen du. Azkenik, *Antzuolako larru ontzea* liburua domekan aurkeztuko da Antzuolako Udaletxean. Antxon Agirre Sorondok idatzi du, Antzuolako Udalak ematen duen bekari esker. Aurkezpen honekin lotuta, larrua ontzeko erabiltzen ziren tresnen eta garai bateko argazkien erakusketa ere antolatu dute. /4 eta 5

Antxon Agirre Sorondoren liburua.

Arrasaten: 'BIZI IZAN JUAT'
Josemari Velez de Mendizabalek idatzia

Aretxabaletan: 'J. PEÑA IDAZLE ATXABALTARRA'
Aitor Antxiak zuzendua

Antzuolan: 'ANTZUOLAKO LARRU ONTZEA'
Antxon Agirre Sorondok idatzia

Azbe®
"Segurtasuna bermatzen dugu, lasaitasuna eskaintzen dugu"
Basabe, 3 - 20550 ARETXABALETA
Tel: 943 712 929

Antonio Campos, Felix Ormaetxea eta Joxerra Zubizarreta.

Arizmendi, Euskal Herriko ikastolarik handiena, aurkeztu da aste honetan

Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintza ikastolak bakar batean bilduko dituen Arizmendi Ikastola martitzenean aurkeztu zen Aretxabaletan. Hantxe izan ziren Arizmendiko Felix Ormaetxea eta Joxerra Zubizarreta, eta Antonio Campos, Ikastolen Elkarteko lehendakaria. /3

Arrasate erdi-erdian

ibai-arte

Zure dendak

Urrats	Aholkularitza
Ehune	Altzariak-apaintzea
Etxe Mobiliario	Altzariak-apaintzea
Eya Sukaldeak	Altzariak-apaintzea
Oihana	Apaintzea
Epelde	Argazki denda
Foto Imagen	Argazki denda
Ikatz	Argazki denda
Tomas	Arrandegia
Phildar	Artile denda
Seguros Elorza	Aseguruak
Kutxa	Banketxea
Euskadiko Kutxa	Banketxea
La Caixa	Banketxea
Tokion	Bazarra
Eroski Bidaiak	Bidaia agentzia
Karmele	Bitxitegia
Zubiaga	Bitxitegia
Aldedi	Burdindegia
Arregi	Enmarkazioak
Artea	Enmarkazioak
Aranzabal	Etxetresna elektrikoak
Eya	Etxetresna elektrikoak
Milar Elkoro	Etxetresna elektrikoak
Hemen	Gozotegia
Muruamendiaraz	Gozotegia
Onandia	Gozotegia
Landaluze	Harategia
Otamendi	Harategia
Parlance	Hizkuntza akademia
JG Impresión Digital	Inprimategia
Anboto	Inmobiliaria
Izozkitegi	Izoztegia
Feli janari denda	Janari denda
Erosle	Janari denda
Kili-Kolo	Jantzi denda
Belem	Jantzi denda
Maza	Jantzi denda
Flash	Jantzi denda
Gili-Gili	Jantzi denda
Haurtxoa	Jantzi denda
Klas	Jantzi denda
Laket	Jantzi denda
Lasagabaster	Jantzi denda
Los Vaqueros	Jantzi denda
Luko	Jantzi denda
Mabel	Jantzi denda
Marga	Jantzi denda
Markiegi	Jantzi denda
Troko	Jantzi denda
Ume	Jantzi denda
Z-R	Jantzi denda
Zur-Lur	Jostailuak
Arrasate Kirolak	Kirol denda
Okendo Kirolak	Kirol denda
Uriarte Sport	Kirol denda
Hire	Larrukiak
Ariane	Lentzeria
Bea	Lentzeria
Nerea	Lentzeria
Sikol	Lentzeria
Titare	Lentzeria
Altuna	Lurrindegia
Lore	Lurrindegia
Zabaleta	Lurrindegia
Zarraoa	Lurrindegia
Ceciaga	Mertzeria
Lilura	Oihalak
Alonso	Oinetakoak
Beatriz	Oinetakoak
Egizabal	Oinetakoak
Totem	Oinetakoak
Txikiak	Oinetakoak
Txuntxurunberde	Oinetakoak
Yoar	Oinetakoak
Zubia	Oinetakoak
Beinke	Opari denda
Galeria 44	Opari denda
Garay Saskiak	Opari denda
Garagorri	Optikak
Tamayo	Paper denda
Portaloi Kioskoa	Prentsa/aldizkariak
Kajoi	Taberna
Lorategi	Taberna
Monte	Taberna
Etxe Lan Fagor SAT	Zerbitzu Teknikoak

ARRASATEKO IBAI-ARTE DENDA ETA ZERBITZU ELKARTEA

Aldaketak MCCko lehendakaritzan

Jesus Catania izango da Canceloren ordezkoa

Jesus Catania atxabaltarra izango da Mondragon Corporacion Cooperativa (MCC) taldeko lehendakari berria.

ENEKO AZKARATE

Artxiboko argazkian, Antonio Cancelo eta Jose Maria Aldekoa.

Jesus Cataniak Antonio Canceloren lekukoa hartuko du datorren urte amaieran, gaur egun MCC taldeko buru dena erretiratzen denean. Gaur, egubakoitza, goizean batzekoa zen MCCko Kongresuko Batzorde Iraunkorra eta, besteak beste, Antonio Canceloren ordezkoa zein izango den erabakitzekoa zen. *Goienkaria*k eguen eguerdian itxi zuen edizioa eta, oraindik erabaki ofiziala hartu barik zegoen arren, iturri onetik ziurtatu ahal izan dugu Jesus Catania izango dela MCCko lehendakari berria.

Jesus Cataniak 58 urte ditu. Altsasuarra jaiotzez, Aretxabaletan bizi da. MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakariorde eta Fagor Elektratresnak-eko hainbat filial eta enpresako Administrazio Kontseiluko kidea da, besteak beste, Argentinako McLean, Poloniako Wrozamet eta Bergarako Geyser-Gastech-ekoa. Jesus Cataniak Industria Ingeniaritza ikasketak egin zituen Madrilen eta 1968. urtean Fagorren hasi zen lanean. Copreci, Ulgor, Ikerlan edota Fabrelec-en hainbat zuzendaritza kargu izan ditu. 1992az geroztik MCCko Kontseilu Orokorreko kide eta MCCko Etxegintza Saileko lehendakariordea da. *Goienkaria*k ahaleginak egin ditu berarekin harremanetan jartzeko, baina ez da posible izan, aste honetan Argentinan izan delako.

HAUTAKETA PROZESUA

Arrasateko kooperatiba taldea lehendakari berriaren hautaketa prozesuan murgilduta izan da azken hilabeteotan. Erabakia gaur goizean hartu da, baina espekulazioak ugariak izan dira. Lau izen aipatu dira azkenaldian: Euskadiko Kutxako buru eta MCCko Kongresuko Batzorde Iraunkorreko lehendakari Juan Mari Otaegi, Autogintza Saileko lehendakari Jose Mari Aldekoa, Juan Luis Olaso Osagaien Sailekoa eta Jesus Catania bera. Hainbat egunkaritan Jose Mari Aldekoa jarri dute Antonio Canceloren ordezko, baina Aldekoak berak martitzen honetan Goiena Telebistari adierazi zion bera ez dela izango MCCko hurrengo burua, besteak beste, ez diolako utzi nahi Autogintza Sailean egiten ari den lanari.

MCCko HIRUGARREN LEHENDAKARIA

Jesus Catania MCC taldeko hirugarren lehendakaria izango da. Javier Mongelosen eta Antonio Canceloren lekukoa hartuko du. Hala ere, esan beharra dago, Jose Maria Ormaetxea izan zela, MCCren sorreran, taldeko burua. MCC 1991ko urte amaieran sortu zen. 1992tik 1995eko urria arte Javier Mongelos izan zen lehendakaria. Bere zeregin nagusia taldearen antolaketa izan zen. 1995ean Antonio Cancelo izendatu zuten MCCko buru eta datorren urte arte jardungo du. Bere agintaldian, internazionalizazio eta hedatze prozesu garrantzitsua bizi izan du taldeak. Hurrengo lehendakariak ildo berari eutsiko dio.

Arizmendi ikastola berrian bilduko dira Leintzeko lau ikastola

IÑIGO BIAIN

Martitzenean aurkeztu zen Aretxabaletan Arizmendi Ikastola bateratua, bailarako lau ikastola bilduko dituena, Euskal Herriko handiena osatuz.

Arizmendik Aretxabaletan duen egoitzan aurkeztu zen joan zen martitzenean Arizmendi Ikastola berria, bailarako Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintza bakar batean bilduko dituena. Hantxe izan ziren Felix Ormaetxea, Arizmendiko zuzendari nagusia, Joxerra Zubizarreta, Arizmendiko komunikazio arduraduna eta Antonio Campos, Ikastolen Elkarteko lehendakaria. Proiektu hau ez da oraintxe jaioa, han azaldu zutenez, garai bateko *Liga de Educación y Cultura* haren ondorengoa baita, gero Hezibide bezala ezagutu zena.

Arizmendi Ikastolak bost kudeaketa eremu izango ditu, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergo edo Lanbide Heziketarainoko esparrua beteaz (0-21 urte), beste zenbait zerbitzu ere beteko baditu ere (Hezkuntza aholkularitza, prestatzaileen prestakuntza, kultur eta hezkuntza zerbitzuak ...), eta bere egitura kooperatiboa izango da; langileak, ikasleen gurasoak eta kolaboratzaileak bazkide izango dira.

Arizmendi Ikastolak, kontuan izanda gaur arteko ikastetxe bakoitzak dituen ikasleak, ia 3.300 gazte izango ditu bere gelatan martitzenetik aurrera, Euskal Herriko ikastolarik handiena.

Zubizarreta, Ormaetxea eta Campos, Arizmendiko egoitzaren aurrean.

Lapurretan egin dute Deba arroko hainbat herritan

E. A.

Deba arroko etxeetan lapurretak ugaldu egin dira azkenaldian. Ertzaintzak jakinarazi duenez, azken bi hilabeteotan, batez ere, jeneralean baino lapurreta gehiago egin dituzte Bergara, Arrasate, Eibar, Elgeta eta Elgoibarreko hainbat etxetan. Barne Saileko iturrien arabera, lapurrek ondo antolatutako taldea osatzen dute, eta janzkera eta itxura txukuna dute, horregatik ez dute susmo txarrik sortzen.

Osteko modu bera erabiltzen dute beti: hasieran etxera deitzen dute, tinbrea behin eta berriz joz, etxean norbait dagoen edo ez jabetzeko. Horrez gain, begiratzeko ateko zulotxoa estaltzen dute eta atea inork zabaltzen ez badu etxe barrura sartzen dira plastikozko txartelak erabiliz.

Ertzaintzak hainbat gomendio egin nahi die herritarrei. Batetik, etxea hutsik lagaz gero atea sarrailarekin itxi dezatela, lapurrek atea txartelarekin zabaldu ez dezaten. Bestetik, susmoren bat izanez gero, Bergarako polizia etxera deitzea eskatzen dute. Telefonoa honako hau da: 943 76 53 40.

Mondragon Unibertsitatea beste eskualde batzuetara zabalduko da

Ordiziako Goierri Goi Mailako Eskolarekin hitzarmena sinatu du

SAIOA OJANGUREN

Mondragon Unibertsitateak (MU), Goierri Goi Mailako Eskolak eta Mondragon Eskola Politeknikoak lankidetza hitzarmena sinatu zuten martitzenean Ordizian. Hauxe da Mondragon Unibertsitateak Debagoienetik kanpo ematen duen lehen urratsa.

Hitzarmen horren bitartez, Ordizian Ingeniaritzako lehen zikloko bi promozio osatzea aurrez ikusi da. Beraz, kokapen berria izango dute Eskola Politeknikoko lehen zikloko jarduerek. Goierri Goi Mailako Eskola honetan hartuko dira, datorren ikasturtetik aurrera, Mekanikako Ingeniaritza Tekniko Industrialeko eskolak. Epe laburrean bestelako titulazio batzuk eskaintzeko asmoa ere badute bi ikastetxeek: heziketa jarraitua, ikerketa eta garapena, enpresa promozioa, ikasketa-lana eta praktikak uztartzearen inguruko proiektuak, besteak beste.

Unibertsitatearen esperientzia eta ezagupenak beste eskualde batzuei eskaintzea da hitzarmen horren helburuetako bat. Titulazio honekin hasiko du Mondragon Unibertsitateak bere zabalkundea. Debagoienetik kanpo irteteko nahia datozen zortzi urteetarako prestaturiko plan estrategikoan jaso du MUk.

Txorierriko Eskola Politeknikoa (Derio) eta Lea Artibai eskualdeko Lanbide Eskola (Markina) MUk egin dizkien eskakizunak aztertzen ari dira.

OÑATI — EUSKAL LIBURU ETA DISKOEN AZOKA GAZTELEKUAN

Aitor Lizarralde/ Laixaneko kultura taldekoa

"Euskal liburu eta diskoak jendeari eskura jartzea da gure helburua"

AINTZANE IRIZAR

Urtero bezala, aurten ere euskal liburu eta diskoen azoka antolatu du Laixanek. Zapatuan Herriko Plazan eta domekan, berriz, Gaztelekuan izango da azoka. Euren helburua, euskarazko ekoizpena jendearen eskura jartzea.

Noiz antolatu zenuten lehen aldiz azoka hau?

Orain dela bederatzi urte antolatu genuen lehen aldiz, 1991ko Gabonak inguruan. Eta ordutik hona, urtero-urtero antolatu du Laixanek, dendari eta bestelako ekoizle askoren laguntzarekin. Hasieran, plazako arkupetan egiten zen; gero, Gaztelekuan egiteko aukera izan genuen eta hara pasatu ginen. Bestalde, urtetik urtera eskaintza bera ere zabaltzen joan gara, eta liburu eta diskoez gain, bestelako produktuak ere egoten dira salgai, eztia edota zeramikazko produktuak, esaterako.

Zein da zuen helburua?

Jendea euskal produktuak, eta batez ere, euskarazkoak erostera bultzatzea. Gabonei begira, euskarazko diskoak eta liburuak oparitzeko aukera ematea eskura.


Aitor Lizarralde.

Bestalde, horrekin euskaraz irakurtzeko ohitura bultzatzen badugu, hainbat hobeto. Esan daiteke, nolabait, 'Durangoko Azoka txiki' bat dela Oñatiko Azoka hau. Eta berau euskaldunon bilgune bilakatu nahi dugu.

Azokaz gain, bestelako ekitaldi sorta ere antolatu duzue.

Bai; azoka bakarrik egin beharrean, gune hori girotzeko hainbat ekitaldi antolatzen hasi ginen duela urte batzuk. Domeka eguerdian Pello Añorga ipuin kontalaria izango da. Arratsaldean bost film labur eskainiko ditugu Gaztelekuan bertan; horietako bat, Aitor Arregi oñatiarraren *Nora hoa, Bixente?* izango da. Eta baita diapositiba emanaldi bat ere, Josu Garairen argazkiekin.

Bizarzurik ere bisitatuko gaitu, eta Oñatiko ume guztiek izango dute Olentzeroren postariari euren gutunak emateko aukera. Hori 18:30ean izango da. Egia esan, orduantxe izaten dugu azokan bisitari gehien.

BERGARA — BERGARAKO ALDIZKARIAREN URTEBETETZEA

'Berrigara' astekariak hamar urte bete ditu aste honetan

Ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dira

MONIKA BELASTEGI

Dagoeneko hamar urte bete dira *Berrigara* astekaria sortu zela. Urtemuga ospatzeko ale berezia kaleratuko du gaur aldizkariak, hamar urteetako errepasoa eginez. Bestalde, astebururako hainbat ekitaldi antolatu dira.

1990eko abenduaren 14an argitaratu zen *Berrigara*ko lehenengo alea. Atzo, eguena, hamar urte bete ziren, beraz, herri aldizkari hau sortu zela Bergaran. Urtemuga ospatzeko, ale berezia prestatu dute *Berrigara*ko langileek. Hamar urte hauetako errepaso sakona jaso dute ale horretan: hamar urteotako albisterik aipagarrienak, pertsonaiarik esanguratsuenak, lanean aritu diren eta diharduten langileak, euskarak herrian izan duen bilakaera, publizitatearen garrantzia... Aste honetan, hortaz, bergararrek hiru aldizkari jasoko dituzte euren etxeetan: 10. urteurreneko ale berezia, ohiko *Berrigara* eta *Goienkaria*.

Bergarako herri aldizkaria Jardun euskara elkartearen baitan sortu zen, bailarako herri aldizkari gehienak bezala. Jardun elkarteak ere hamar urte bete ditu aurten, maiatzaren 17an, hain zuzen ere.

Gaur *Berrigara*ren ale berezia banatu da.

HAINBAT EKITALDI ASTEBURUAN

*Berrigara*ren eta Jardunen urtemugak ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte elkarte eta aldizkariko kideek. Gaur, egubakoitza, 17:00etatik 18:30era, umeendako jolasleku ibiltaria egongo da, eta 22:30ean, berriz, Doro ipuin kontalaria eta Rita La Arrabalera, Zabalotegiko aretoan. Bihar, zapatua, 16:00etatik 20:00etara, gaztainerreak eta Urbeltz taldearen emanaldia egongo dira San Martin plazan.

ELGETA — ANTZERKIA ASPALDIKO PARTEZ

Lotsa barik jardungo dute sexuaren gainean

Auditoriumarentzako izen bila Kulturan

IBAN ARANTZABAL

Sexuak sortzen dituen beldurrak, emozioak, frustrazioak... azalduko dizkigute zapatuan Lotsagabe antzerki taldeko Jon Calvo, Getari Etxegarai, Miren Ibarguren, Gorka Otxoa eta Maider Yabarrek.

Kale antzerkiak ikusi ahal izan ditugu, baina taula gaineko antzerkirik Elgetan egon ez dela urte mordoxka da. Konpainiako Ana Pimentaren esanetan, lan hori "gazteek sexuarekin dituzten harreman korapilatsuak landu dituen komedia bat da". Hasteko, ez dago batere txarto. Komedia bat ikusiko dugu zapatuan, hilak 16, gaueko 10etan. Sarrera batzuk erreserbatuta daude, beraz, horiek jarriko dira aretoaren lekurik onenean. Beste 275 jarlekuak 500 pezetaren truke eskuratu ahal izango dira.

Auditorium berrian egiten den lehenengo emanaldia izango da eta oraindik inauguratzeka dagoen aretoa bete-bete egingo da. Aretoari izena jartzeko, aurrerago egingo den tanborradako erakusketan herriak proposamenak egingo ditu. Dagoeneko 60 milioitik gora kostatu den aretoak ekin dio bere ibilbideari.

EUSKALTZAINDIAKO ONOMASTIKA BATZORDEAREN BATZARRA, ELGETAN

Bestalde, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordea Elgetan batuko da hurrengo eguenean, goizeko 10etan. Juanito San Martinen liburua ere aurkeztu nahi da, kalera urtarrilean irtengo den arren.

Erreka izenez, herri izenez eta abarrez arduratzen den lantaldeak egun guztiko jardunaldia egingo du Kultura Etxean.

Zertzelada

Aspaldiko partez, antzerkia ikusteko aukera izango da zapatuan Elgetan. Gazteek sexuarekin dituzten harremanak landu dituen komedia bat izango da.

ANTZUOLA — ANTZUOLA HERRIA III. IKERKETA BEKA

Larru ontzeari buruzko liburua aurkeztuko da domeka eguerdian

Antxon Agirre Sorondo etnografo eta historialariak idatzi du

AINTZANE IRIZAR

Antzuolako larru ontzea liburua datorren domekan, hilak 17, aurkeztuko da udaletxean, 12:30ean. Antxon Agirre Sorondo etnografo eta historialari donostiarrak idatzi du liburu hau, Antzuolako Udalak ematen duen beka bati esker. Hantxe izango dira, besteak beste, Mireia Unamuno alkatea, Jose Luis Kortabarria Kultura Batzordeko lehendakaria, Iñigo Ramirez de Okariz ikerketaren koordinatzailea, eta baita Agirre Sorondo bera ere.

Duela lau urte sortu zuen udalak Antzuola Herria ikerketa beka, herria hobeto ezagutzen laguntzeko helburuarekin. Ordutik hona, hiru gai aztertu dira eta beste horrenbeste liburu argitaratu: Jone Larrañagak Antzuolako hizkera aztertu zuen eta Marijo Deograciasek, berriz, Zesareo Gabarain maristaren bizitzari buruzko ikerketa egin zuen. Beraz, honako hau Antzuola Herria bekak eman duen hirugarren emaitza da.


Larru ontzeari buruzko hainbat argazki eta anekdota ere bildu ditu Agirrek.

Larru ontzeak egundoko garrantzia izan zuen Antzuolan. XIX. mendeko bigarren erdialdean eta XX. mende hasieran jarduera ekonomiko garrantzitsuenetakoa izan zen. Antzuola bezalako herri txiki batean larrua ontzen zuten lau enpresa egoteak erakusten du jarduera horrek herriko ekonomian zuen eragina.

Aurkezpen honekin lotuta, larrua ontzeko erabiltzen ziren tresnen eta garai bateko argazkien erakusketa ere antolatu dute. Abenduaren 17, 23 eta 24an egongo da zabalik udaletxean, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era.

ARRASATE | DATORREN URTEKO UDABERRIAN

Clara Ezkurra, Erroman beatifikatuko duten lehen mondragoetarra

Erguin baserrian jaio zen 1896. urtean eta Espainiako gerran hil zuten Valentzian

UBANE MADERA

Lehenengo mondragoetarra beatifikatuko dute Erroman martxoa eta apirila bitartean. Clara Ezkurra Urrutia da bere izena. 1896. urtean jaio zen Erguin baserrian, Mondragoeko Uribarri auzoan, eta 40 urte zituela hil zuten Valentzian. Han hil zenez, Valentziako gotzaitegia arduratu da beatifikazio prozesu guztiaz.

EGINDAKOAK

Clara Ezkurrak txikitandik izan zuen erlijioarekiko maitasun berezia. Umeak Lehenengo Jaunartzerako prestatzea atsegin zuen, eta, horrez gain, katekista ere izan zen. Ondoren, 24 urte zituela, moja karmeldar egin zen Gasteizen, eta Bartzelonan egon ondoren, handik Valentziara bidali zuten, Erruki-Etxera.

Langilea zen, berez; egunero-egunero goizeko 3retan jaikitzen zen lanak egitera. Gaixotu arte lan egitea zen bere leloa. Gaixotu ere larri gaixotu zen hiru hilabetez, baina sendatu eta berehala ekin zion berriro lanari.

30eko hamarkadan, baina, egoera politikoa latza zen erlijiosoentzat eta Valentziako Erruki-Etxeko bizilagunek ere jasan zituzten egoeraren astinduak. Mojek etxea utzi egin behar izan zuten eta sufrimendu ugari pairatu zituzten. Besteekin batera kartzelaratu zuten Clara eta 1936. urteko azaroaren 24an hil zuten, fusilatuta.

Clararen ametsa zen martiri izatea eta Jesukristorenganako fedearengatik hildako guztiak moduan, azkenean martiri izendatu zuten Clara Ezkurra. Orain, hurrengo urratsa eman eta bizitzan egindako lan guztia goraipatuko dio Aita Santuak Erroman, beata eginez.

Clara Ezkurraren familia pozik dago Elizaren erabakiarekin eta dagoeneko iragarri du Erromara joateko autobusak antolatuko direla Mondragoetik.

Clara Ezkurra.

ESKORIATZA

Elkartasunez jantzi da herria aste honetan

IÑIGO BIAIN

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak elkartasun kolorea hartu du aste honetan. Fakultate horretako lau ikaslek joan zen kurtsoan Txiapasen izandako esperientzia, alde batetik, eta urtarrilean Hego Amerikako lau herrialdetara joango diren 15 ikasleen balentria, bestetik, aitzakia bikaina izan dira aste hau antolatzeko.

Astelehenean, praktiken programaren arduraduna den Nerea Alzolaren eskutik, urtarrilean joango diren ikasleen nondik norakoak aurkeztu ziren. Martitzenean iazko Txiapaseko esperientziaren berri izan genuen lau ikasleren eskutik, eta eguaztenean programa honen bultzatzaile nagusienetakoa den Mundukide elkarteak egin zuen iazko balorazioa, eta datorrenaren aurreikuspena. Eguenean, Hirugarren Mundu bezala ezagutzen dugun horretako produktuak dastatu eta erosteko aukera izan genuen batetik, eta Txanba izeneko kantautorearen emanaldia entzuteko, bestetik.

ARETXABALETA | EGUENEAN AURKEZTU ZEN

Jesus Peña atxabaltarraren bizitza lan batean irakurgai

Kazetariari buruzko liburua kalean da

MIRARI ALTUBE

Atzo, hilak 14, *Jesus Peña idazle atxabaltarra* liburua aurkeztu zen. Liburuaren aurkezpenean Jose Mª San Sebastian *Latxaga*, Euskarazaintzako kidea eta idazlea, Lorea Leanizbarrutia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Saileko zuzendaria, Anjel Bergaretxe, Aretxabaletako alkatea, Jesus Atxa, hainbat ikastolaren bultzatzailea, eta Lorentxo Peña, omenduaren anaia, izan ziren.

ARETXABALETAKO ARGAZKI TALDEA

Jesus Peña kazetari atxabaltarra.

KAZETARI GAZTEA

1914an jaio zen Aretxabaletan. 19 urte besterik ez zuela hainbat aldizkaritarako hasi zen idazten. *Aitza* gaitzizenaz sinatzen zituen artikuluak eta gehientsuenek Aretxabaletako berriak jasotzen zituzten. Gerra hasi zenean, Eusko Gudarosteko Saseta batailoiko partaide izan zen, eta 1937ko abuztuan Kantabrian fusilatu zuten.

HIRU ATALEKO LIBURUA

Liburu hau *Latxaga*k hasi zuen *Aitza*ren lanak aztertzen hasi zenean. Jardun horretan Aitor Antxia atxabaltarrak hartu zion txanda, eta hiru ataleko liburua kaleratu da. Lehenengo zatian, mende hasierako Aretxabaletaren berri ematen du Aitorrek. Bigarrenean, Jesus Atxa eta Lorentxo Peñak mutiko garaiko kontakizunak jaso dituzte, eta hirugarrenean, *Aitza*ren lanak batu dira.

Liburua herriko dendetan salduko da.

Zertzelada

Aretxabaleta, abertzaletasuna, euskara eta gerra kontuen inguruko artikuluak kaleratu zituen "Aitza"k, euskal aldizkari eta egunkarietan.

LEIBAR ARRAINDEGIAK
Mitarte, 1 • Tel.: 943 771379
Loramendi, 1 • Tel.: 943 791833
ERRASTI Kioskoa
Durana, 19 • Tel.: 943 799876
GEMES EDERTZE ARETOA
Durana, 40
Tf. 943 799918
Santa Kurtz
Janari denda
Tel.: 943 79 28 19
DROGERIA MERTZERIA LEINTZ
Errekabarren, 3 • Tel.: (dendakoa) 943 79 78 63 (etxekoa) 943 79 06 84
IBARRA ESTANKOA
Bizkaia, 3 • Tel.: 943 792377
Maritxu Mertzeria
Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
Lasai
Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 • Tel.: 943 770434
Loramendi, 1 Tel.: 943 79 71 69
MartiN
Mitarte, 16 • Tel.: 943 79 01 72
JOSU
Urdaitegia
Gozotegia
Kroasantegia
Janari prestatuak
Mitarte, 1 • Tel.: 943 77 03 08
FARMA BIZI
Loramendi, 8
Tel.-Faxa: 943 771818
Lurrad
Ileapaindegia eta edertze aretoa
- ESTENSIOAK
- MIKROPIGMENTAZIOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA
Loramendi, 11 • Tel.: 943 799079
BITXIERDIA
MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA
BITXIEN KONPONKETA
Otalora kalea. Elitza aurrealdean
Tel.: 943 771357
Etxabe haratega
Durana, 4 • Tel.: 943 79 16 61
Bereziki: Harategia Ordaitegia Fruitategia
IMANOL JANARI DENDA
Gorbea kalea. • Tel.: 943 79 05 83
BEGIONDO OPTIKA
Loramendi, 10 • Tel.: 943 79 98 21
Gertu
Especialidad en bacalao
Jakien Elaboración eta Salmenta
Elaboración y Venta de Comida
Mitarte, 10 • Tel.: 943 770612
ALBOKA MODA JOVEN
Durana, 36 • Tel.: 943 771610
MAURRAK
Umeendako moda
Lezama merkatal zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86
ELECTRONICA AITZORROTZ
Otalora, 14 • Tel.-Fax: 943 791610
Erruteria Errekabarren
943 799643
Puntadenda
LENIZ liburudenda
Herriko Plaza, 10
Tel.: 943 79 75 53
FLORISTERIA NERIAN LORADENDA
Tel.: 943 79 70 66
GARBITZE
Loramendi 6, Behea • Tel.: 943 79 53 61
CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14
Tel. 943 770792
Jauregi okindegia
Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ASENSIO
JANTZIDENDA
Mitarte, 12 • Tel.: 943 79 10 72
ALDE ARETXABALETA
Murubide IFA
Murubide, 4 • Tel.: 943 79 91 76
Frutan eta txarkuterian espezialitatea
Angelines
AUTOZERBITZUA
Mitarte, 16 • Tel.: 943 79 61 42
MARI KARMEN oinetakoak
KONPONKETAK
Errekabarren • Tel.: 943 79 59 85
ARETXABALETA
Fontanería
ITURGINTZA
Durana, 16 • Tel.: 943 79 17 53
XUME Teladenda
Errekabarren, 14 • Tel.: 943 79 11 19
PAPERDENDA LIBRERIA LOTERIA
IBER
Otalora, 2
Tel.: 943 79 79 24
Zubia Oinetakoak
Mitarte, 14
Tel.: 943 79 16 00
IRIARTE
Umeen dendа eta lenceria
Durana, 8 • Tel.: 943 79 10 96
TXILARRA
ELIKADURA BEREZIA
Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15
Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
Irudi
ILEAPAINKETA PELUQUERIA MIXTA
Errekabarren, 20 b. • Tf. 943 798090
HERRASTI AKEITA ETXEA
CAFES
Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83
LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA
aretxarte
MERKATARI ELKARTEA
"UMEEN" LOTERIA OPARITZEN DUGU
Gabon zoriontsuak

GOIENKARIA
Egubakoitza, 2000ko abenduaren 15a

Zabalik

ANDRES OSA

Etsaiari, gogor

Hezkuntza sistemari orokorrean eta Euskal Hezkuntzari bereziki eraso bortitza ematen ari dira. Horretarako, hedabideen laguntza bikain aprobetxatzen ari da gobernu española.

Sekulako erasoa, eguna joan eta eguna etorri, eman litezkeen kolperik zorrotzenak ematen ari dira.

Esate baterako, Nafarroan gertatzen ari dena. Nafarroako gobernuak euskararen erabilera zeharo murriztu nahi du. Kinka larrian jarri du. Zergatik ote? Sanz-ek eta gainerako españolistek euskararen etorkizuna indartzen joango zenik ez zuten espero. Alderantziz, moteltze bidea izango zuela.

Zorionez, prebisioak kale egin diote eta euskarak, denbora gutxian, gorantza gogor egin du. Kezkaturik daude eta estu eta larri urari presa jarri beharrean aurkitu dira. Baina, ziur gaude, jendea bero-bero dago eta bide honetatik sutan jarriko da. Motelak pizteko okasioa ere izango dute. Euskararen militanteak sortzeko metodo ona izan liteke. Sarritan, horrelako erabakiak behar izaten dira lozorrotik irteteko. Hegoaldeko beste hiru probintzietan ere antzerako zerbaiten beharra dago, pittin bat mugitzeko.

Kanpaina honen pozoina ez da euskara munduan agortzen. Euskarazko irakaskuntzaren aurka doa, ikastetxeen autonomiaren aurka eta, orokorrean, hezkuntza sistemaren aurkako erasoa da.

Momentu egokian datorkigu erasoa eta guraso, irakasle, ikasle eta giza indarren berpiztearen hasiera izan liteke.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@topagunea.com

Bergarako herriari

Datorren urtearen hasieran 21 urte beteko ditu kartzelan gure herrikide eta lagun Jose Mari Etxanizek. Kontuan izanda bere zigorra dagoeneko oso-osorik betea duela, hainbat ekimen bultzatu nahi ditugu Etxaniz askatzea eskatzeko. Esaterako, bergararrek sinatutako gutun piloa bidali nahi dizkiogu Gaztela eta Leongo espetxeepaileari . Datozen egunotan hasiera emango diogu kanpainari. Hori dela eta, hainbat postu jarriko ditugu Bergarako kaleetan, ohiko tokietan.

Aldez aurretik, gure eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen honetan parte hartuko duten guztiei.

BERGARARA PLATAFORMA
Bergara

Euskal Herriaren aurkako erasoari erantzuteko deialdia

Espainiar estatuak estrategia argi bat jarri du mahai gainean: Euskal Herria desagertzera daraman estrategia, hain zuzen. Ez da estrategia berria, historikoki mantendu duen jarrera bera da egun ere estatu espainiarrak agertzen duena, baina urteetan zehar hainbat saiakera hutsal egin ondoren, hordagoa jotzeko prest agertzen da oraingoan.

Zergatik? Ohartu direlako Espainia proiektua deitzen dutena krisi latz baten sartuta dagoela, ez direla gai izan urte hauetan guztietan Euskal Herriaren askatasunaren aldeko indarrak suntsitu eta herri honen etorkizun librea ezabatzeko. Ohartu dira gainera, indar horiek guztiak, direla politikoak, sindikalak eta sozialak, inoiz baino ozenago aldarrikatzen dutela Euskal Herriaren nortasuna eta etorkizun librea.

Eta herri honen borondate librea errespetatzeko inongo borondaterik ezean, urtetan mantendu duten estrategia muturreraino eramatea erabaki dute espainiar agintariek, modurik desesperatuenean. Horretara datoz egin dituzten atxiloketa guztiak, errepresiorik basatiena eragiteko prest daudela agertzen dutenak, frankismoaren ildo bera jarraitzeko prest daudela adierazten dutenak, Euskal Herriaren aldeko edozein saiakera, edozein ahots, kriminalizatu eta espetxerako bidean jarriz.

Hamaika dira azken urteotan ezagutu ditugun operazioak: Mahai Nazionalaren atxiloketa, Egin-en itxiera, Xakiren inguruko operazioa, Ekin-en aurkakoa, Zumalabe, Bai Euskal Herria plataforma, ABK..., amaitzen ez den zerrenda, zeinak argi adierazten duen egungo marko juridiko eta politikoan herri honen eskubideak hutsaren hurrengoak direla eta Garzon gisako epaileek nahi dutena egin eta desegin dezaketela, beti ere Madrilgo Gobernuaren estrategiari jarraiki.

Ez dira eraso isolatuak, kate berean loturik datoz, eta herri honen izaera eta nortasuna adierazten duten ikur oro ezabatzeko helburuz eginak dira, irakaskuntza alorra dela, Humanitateeen dekretua lekuko, euskara... Testuinguru honetan kokatzen dugu AEKren aurkako azken erasoa, beste erasoaldiekin batera Euskal Herriaren aurkako estrategian.

Estatutuaren estrategia basati honek bi erantzun mota eskatzen ditu: bata, dagoeneko martxan dugun prozesu burujabea, Euskal Herria bere osoan harturik eszenatoki demokratiko batera eramatea helburu duena, indar osoz aurrera eramatea, honetxek kezkatu eta beldurtzen dituelako, inoiz kezkatu eta beldurtu ez diren moduan. Eta bi, estatu espainiarrarengandik jasotzen ditugun eraso guztiei tamainako erantzunak mahai gainean jartzea, horretarako eragile politiko, sindikal eta sozialak enplazatuz, herri honek bizi duen une historiko honetan behar den erantzukizun eta arduraz joka dezagun eta dezaten.

Ez dira epelkerietarako garaiak, ezta geldirik geratzekoak ere. Euskal Herria herri gisa defendatu eta etorkizuneko orube eta zutoinak jasotzeko ordua heldu zaigu, gure etorkizuna inposizio eta muga guztien gainetik eraikitzekoa. Eta hau gure borondatearen arabera dago, gu epaileen borondatetik kanpo, beraz. Guztion esku dago irabazteko aukera, libre eta bakean bizi nahi duen herri baten alde lan egiteko premia. Hel diezaiogun erronkari!

BERGARAKO EH
Bergara

Olentzero eta Ekialdeko Errege Magoak

Aurten bene-benetan bai, mesedez; ia eskatutakua ekartzen dostazuen, aspaldian nerekin ahaztuta zaretela emoten dau eta. Kalian bai, Gabonetan batez be, argi dotore askuak eta ugari ikusiko dittuzue Bergarara zatoztenian, baitta kanpotik be, hortan ez gaittuk makalak bergararrok. Baina, ez deskuidau gero Ibaiondo eta Poligono atzealdetik pasatzen, bestela zuen asto eta gameluokin estropozu ederrak egingo dittuzue eta, argi faltagaittik.

Gainera, parian be suertau leike zulo bat edo beste. Horregatik, ulertuko dozue ez dala kapritxo hutsa; paraje honetarako argixak eskatzen dotsuet berriro be. Ahaztu, nahi badozue, kotxekapotia eta bestiak, gehixegi pentsatzen bajatzue.

Ondo portatu naiz, egixa. Musu haundi bana.

BLANCA NARBAIZA ERDABIDE
Bergara

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE

Eztabaida

Behi eroak', scrapie gaitza, janari transgenikoak, oilaskoak, kontserba-latak... Elikagaien inguruan asko egiten da berba. Janarien gainean, gaur egun, sekula baino ikerketa eta kontrol handiagoa egiten da, eta kontsumitzaileen elkarte eta abarrei esker, inoiz baino informazio gehiago jasotzen dugu. Era berean, jaten dugunaren inguruko kalitatearengatik kezkatuta daudenak sekula baino gehiago dira herrialde garatuetan. Baina, elikagaiei buruzko horrenbeste informazio eduki arren, badakigu zer jaten dugun?

'Behi eroak', transgenikoak,... badakigu zer jaten dugun?

Gero eta kontrol handiagoa dago elikagaietan



GERMAN MURUAMENDIARAZ
Eusko Labeleko zuzendaria

Elikagaiei buruz, inoiz baino informazio, ziurtasun eta berme gehiago daukagu gaur egun, nahiz eta arlo honetan ere zer hobeturik izan. Gaur egun, zaharrago hiltzen gara eta horretan elikadurak zerikusi handia dauka. Bestalde, elikagaiein gainean, gero eta ikerketa, kontrol eta jarraipen gehiago egiten da.

Kontsumitzaileak zeresan handia dauka kontu honetan, dagoen inspektorerik onena bera da eta. Eta kontsumitzaileari informazio zehatza eta benetakoa eman behar zaio. Hala ere, onartu behar da, askotan larregiko informazioa jasotzen dugula eta benetan komeni dena da jasotzen dugun informazioa argia eta zehatza izatea, nahasmenik eta gaizki ulerturik ez sortzeko.

Baina, jakien inguruan zalantzarik izateko edo urduri jartzeko motiborik badauka kontsumitzaileak? Adi egon beharra daukagu eta gauzak ondo egiteko eskatu.

Administrazioaren aldetik, Elikagaien Segurtasunerako Agentzia sortu beharraz berba egin da azkenaldian. Horrekin, aurrerapauso handia emango genuke eta, gutxienez, administrazioen eta gobernuko sailen arteko koordinazioa ziurtatuko litzateke, 'behi eroen', scrapiaren edo beste edozein motako arazoren aurrean zer pauso eman behar diren ziurtatzeko. Bestetik, alerta-egoeran egon behar gara etengabe, eta prebentzioa bultzatu, arazoei aurre hartzeko, eta arazorik sortuz gero, erantzun egoki eta azkarra emateko.

Hobe da jatea pentsatzea baino

PATXI MONTERO
Nekazaritza Ekologikoaren Euskadiko Federazioa

Begira: supermerkatuan 60 pezetan saltzen den esnea, ez da esnea. Ba al zenekien? Baina, zure eskuak hori aukeratzeko joera dauka, merkeena delako. Eta hainbeste ohitu zara gustu berri horrekin, benetako behi esnea iada ezin duzu jasan. Nire maiteak dioen bezalaxe 'behi gustua dauka'.

Zure postontzia betetzen duten propagandetan beti merkeena nabarmentzen da, *txolloa* goraipatzen duen kulturan bizi garelako, baina ziur ez duzula inoiz egin ariketa hau: saltxitxa paketeak 42 pezeta balio badu (propaganda orri batetik kopiatu dut) eta 160 gr.ko pisua badauka, kiloak 262,5 pta. balio du. Zer haragi izan daiteke, animalia-ganaduzalea-hiltegia-enpresako prozesamendua-ontzia-garraiolaria-kilometro-ak-gasolina-maiorista-banaketa eta zuk erosi duzun denda, katearen amaieran kiloko 262,5 pezetako prezioa duena?

Zer jaten dugun ba ote dakigun? Bai, zera! Gehienetan, gainera, ez gaude horretan pentsatzeko. Ez gara elikatzen, tripa betetzen dugu. Nire bizilagunek afalosteko tertulietan diotenez, 'hobe da jatea pentsatzea baino'.

Zoritxarrez, behi eroen kontu honek guztiak ez du apenas ezertarako balio izango. Pentsamolde industriala da gaur nagusi nekazaritzan eta elikagaien produkzioan. Margenik handiena, kosterik txikiena. Barruan zer dagoen beherago dago inportantzia mailan. Eta erosle gehienek, batez ere, prezioari begiratzen diotenez, beste galderarik egin gabe... Ez, arazoa ez dago pentsuetan, sisteman baizik. Gu gara arazoa.

Iruzurra nagusi?

Kalitateari gero eta garrantzi handiagoa ematen diogu bizi dugun gizartean. Enpresetan, eskoletan, komunikabideetan, janarietan..., edozein arlotan kalitatea da hitz magikoa. Gaur egun, asko produzitu eta saltzea bezain garrantzitsua da ondo produzitzea. Kalitatezko produktuak merkaturatzea da helburua. Hori barneratuta daukagu denok. Eta kontu honetan asko aurreratu da. Neurri handi batean, kontsumitzaileen elkarteen lanari esker, administrazioak gero eta diru gehiago eskaintzen dio kontu honi, label kalitate ziurtagiria hor dugu, esaterako.

Baina, era berean, eta hau da paradoxa, iruzurraren gaineko albisteak ia egunero darabilkigu ahoz aho. Seguruen gaur egun lehen baino iruzur gutxiago egingo da janariekin. Edo, beharbada, ez. Ez dakit. Kontua da gaur egun informazio gehiago jasotzen dugula eta behi eroen moduko albisteak entzun ondoren, kezka eta beldurra sortzen zaigula. Horrelako nahaspilarekin ez dakigu zer jan dezakegun eta zer ez, eta janariak osasunari zelan eragiten dion ere ez.

BELEN RODRIGUEZ
Arrasate

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — **Iritzia emateko: berrigara@topagunea.com**

Gabonetako kaleko argiak: larregiko gastua?

Gora eta Behera

IRLANDAKO BAKE PROZESUA

Agintaldia amaitzean, harrotasunez zabaldu du Clintonek Irlandako bake prozesuan EEBBek izandako parte hartzea. Britainia Handira egindako bisitan, hango agintari nagusiarekin ez ezik, bake prozesuan murgilduta izan diren alde guztietako ordezkariekin ere bildu da, eta guztiei aitortu die egindako lana.

NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako presidente Miguel Sanzek euskara "anormaltzeko" eta Nafarroan duen indarra kentzeko hartutako erabakia. Beste behin, argi geratu da nork politizatzen duen euskara. Bestalde, Europako Batasunak adostasuna bultzatu barik, estatu boteretsuenei eman die indarra, herrien ahotsa ahulduz.

ANAJE NARBAIZA
Kapirixo elkartekoa

Koplak

Sendabelarra

Koldo Zuazok idatzi dosku
liburu bat balekua
euskalkixari emun gurata
merezi daben lekua.

"Euskeriaren sendabelarrak"
ipini dutzo izena
ta diño zaindu egin behar dala
belarrixa eta sena.

Etxien ondo ikasi arren
gero ikasixa ahaztu
idazten hasi ta ahozkua
zergatik dana nahastu?

Eskola eta ikastoletan
zela ikasiko da ba,
irakaslea beria eitten
lotsatu egiten bada?

Kontua ez da zein dan hobia
geuria ala batua
maila hortara iritsi barik
badago zer hobetua.

Aurriak berak erakusten dau
zela dantzatu atzia
Goienkarixari komeni jako
sendabedarrak hartzia.

ARANTZAZU LOIDI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
SAILETAKO ARDURADUNAK: Marijo Deogracias (Kultura, Denborapasa, Telebista), Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Uxue Zabaleta, Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Maddi Trutxuelo, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2000ko abenduaren 15a

Urte barri-barri txarri-belarri daukanak ez daukanari kolkua bete madari!

Zuen zerbitzura

ARRASATEKO UDALA

Juan Zelaia Letamendi Oñatin jaio zen 1920ko abuztuan. 1960an Tximist-eko gerente egin zenetik, lanean dihardu geratu barik. Hainbat enpresatako lehendakaria da (CEGASA, Tuboplast, Hidronor), eta beste askotan partaide. Baina, azkenaldian, euskal kulturaren aldeko apustuak eraman du berriro komunikabideetara.



IÑIGO BIAIN

Juan Zelaia

ENPRESARIA ETA EUSKALTZALEA

"Nire esku balego, debekatu egingo nuke eskualdean lantegi gehiago egitea"

TXAKOLINA

"Gipuzkoan ezin da txakolinik sartu Aia, Zarautz edo Getarian ez bada. Lotsagarria da, hemen mahatsa beti egon delako"

KULTURA

"Kulturalki osasuntsu dago Euskal Herria. Inoiz baino ekimen gehiago dago, baita euskararen alde ere"

IÑIGO BIAIN

Juan Zelaia Letamendi, Oñatin *Upain* moduan ere ezaguna... Zer zara zu, enpresari euskaltzalea ala euskaltzale enpresaria?

Ni, lehenik eta behin, gizona naiz. Hori kontuan izanda, gizon euskalduna naiz ondoren, eta enpresen munduan dabilen gizon euskalduna azkenik. Baina, lehen-lehenik, gizona.

Azkenaldian, bi bider ikusi zaitugu komunikabideetan: uztailean lehendakariaren eskuetatik jaso zenuen Lan Onari Saria. Orain egun gutxi, berriz, Ruper Ordorikaren eta Bernardo Atxagaren laguntzarekin, Juan Zelaia saiakera saria aurkeztu zenuen.

Ruper Ordorikaren aita nirekin izan da lanean urte askotan, eta Bernardo Atxagaren pisuko pertsonaia batek horrelako proiektu bat niri proposatzea oso pozgarria iruditzen zait. Ni, izatez, ez naiz literatura gizona. Nire esparrua enpresa da, baina kasu honetan, horrelako laguntza bat ematea benetan zoragarria iruditu zait. Nahiko nuke, gainera, saiakera sari hau urte askotan luzatzea, ez dadila urte bakarrerako gauza izan. Oso zoriontsu egiten nau nire izena daraman sari hori hor izateak.

Durangoko azoka pasatu berri da. Erosten eta irakurtzen duzu libururik?

Irakurtze zailekoa naiz, baina atsegin dut. Dena dela, historia testuak nahiago ditut literatura hutsa baino. Euskaraz irakurtzea da kostatzen zaidana, gu alfabetatu gabeak baikara. Nire bizitzan euskaraz besterik ez dut egin, baina idazten eta irakurtzen inoiz ez dut ikasi. Gainera, batua dela, oñatiera dela, ... nahaskila horrek guztiak ere ez du askorik laguntzen. Baina, bestela, nire eguneroko bizitzako hizkuntza euskara da.

Zelan ikusten du Juan Zelaiak euskal kultura XX. mendea bukatzera doan honetan?

Kulturalki oso osasuntsu ikusten dut Euskal Herria. Uste dut inoiz baino gauza gehiago egiten ari dela, bai euskararen, eta bai euskal kulturaren alde ere. Beste gauza bat da politikoki dagoen nahasmenak hori nolabait estali egiten duela. Baina, aipatu berri dugun Durangoko azoka ikusi besterik ez dago, zenbat lan berri aurkezten den urtero. Inoiz ez da antzekorik izan.

Enpresari euskaldun bezala, egoera politikoa oso garrantzitsua izango da zuretzat. Zelan ikusten duzu Euskal Herriko egoera?

Orain nahiko nahasia dirudien arren, nik ez daukat zalantzarik berriro konponduko direla gauzak. Lizarra-Garaziko itunarekin, eta ETAren suetenaren garaian, gauzek beste itxura bat hartu zuten. Eta nik neuk bidea horixe dela uste dut. Oraingo egoeran, eta enpresari bezala, konturatzen naiz Enpresa kalteturik ateratzen dela, baina esan dudan bezala, uste dut gauzek hobera egingo dutela. Ez nukeena nahi, inolaz ere, PPko lehendakari bat. Normalizazioa da behar duguna, eta ez dut uste horrek lagunduko lukeenik.

Globalizazioa askotan aipatzen den mamua da. Geure bailara honetan ere horretaraxe goazela dirudi. Herria galtzera doa hiriari bidea emanez?

Datorrenari beldurra izan diezaiokezu, edo ez. Baina, zalantzarik ez dago hori badatorrela. Hau ez da politikoen esku dagoen gauza bat, teknologiak dakarrena baizik. Gaur egun berdin da telefonoz etxeko sukaldera deitzea, edo Shangaiko herritxo batera. Azken batean, komunikazioa hobetzen da, eta horrek izugarrizko aldaketak ekarriko ditu gure bizitzara. Beraz, ontzat edo gaitzat hartu, horri heldu beharko diogu, horixe dator eta. Nik *Internazionala* abestia askotan entzun dut, baina benetako internazionalizazioa teknikak ekarri du. Globalizazioa hitza aipatzea oso erraza da, baina kontuan izan beharko dugu horrek dakarrena, aldaketa ikaragarria izango da eta. Horren aurrean egin dezakezun bakarra onartzea da, horren aurka egitea alferrikako lana bailitzateke. Onartu eta esparru berri horren barruan ahalik eta ondoen jardun.

Eskualdean jarraituz, noraino hel daiteke industrializazio maila gure inguruan? Ez dago oso saturatua?

Nik Debagoiena gaizki ikusten dut, ez baitago industriarako lurrik. Azterketa sakon bat egin beharko litzateke eskualdeko industriagintzan, lantegi handi gehiagorik ezin delako hemen sartu. Dagoeneko, nahiko nahastuta daukagu bailara, etxeak direla, lantegiak direla, gehiago egiten hasteko. Azpiegiturak ere ez dira oso onak, baina ezin dira hobetu, alde batetik guztia nahiko saturatua dagoelako, eta bestetik orografiak berak ez duelako laguntzen. Cegasa ere bere garaian horrexegatik joan zen Gasteizera. Nik neuk, nire esku balego, debekatu egingo nuke eskualdean lantegi gehiago egitea.

Zelakoak izan ziren garai bateko Tximist-en hastapenak? Eta zelan garatu zen gaur eguneko Cegasa arte?

Tximist gure aitak, Celaya, eta beste bi bazkidek, Enparanza eta Galdos, sortu zuten. Gerra piztu zen, eta Konfiskatze Batzordeak gure ondasun guztiak errekisatu zituen, eta baita lantegia ere, Zaragozako Tudor bateria enpresari aldi baterako utziaz. Hauxe izan zen Estatuko lehen pila lantegia. Gerra amaitu zenean, 1942-43 aldera, berriz itzuli zizkiguten ondasunok, baina ni 1960a arte ez nintzen gerente bezala hasi. Ordutik hona, aldaketa ugari izan dira, baina agian handiena lantegia Gasteizera eraman genuenekoa izan zen. Produkzioan ere iraultza itzela izan da. Orain dela urte batzuk, minutuko 30 pila egiten genituen. Orain, 600 ekoizten ditugu denbora berean.

Izena ere aldatu genion. Jatorrizkoa Tximist zen, baina marketin eta publizitateko jakitunek aldatzeko gomendatu zidaten, euskaraz ez zekitenentzako nahiko izen zaila zela eta. Horregatik CEGASA (Celaya, Enparanza, Galdos, S.A.). Baina, nik Tximist askoz gustukoago dut, eta nire esku balego, berehala itzuliko nintzateke jatorrizko izen horretara..

Zu zeu ere saiatu zara, edo saiatzen ari zara, produkzio alternatiboan. Txakolinaz ari naiz... Baserriko giroari lotutako enpresaria zaitugu?

Inguruan lurrak ditut, eta txakolinetarako mahatsa sartu nahiko nuke, alde batetik, lurra aprobetxatzeko, eta bestetik, txakolinaren mahatsa oso polita iruditzen zaidalako. Baina, arazoa da Gipuzkoan ezin dela txakolinik sartu, Aia, Zarautz edo Getarian ez bada. Lotsagarria da, hemen mahatsa betidanik egon delako, eta baita txakolina ere. Urrunago joan barik, duela gutxi arte aspaldiko mahatsaren sustraiak izan dira hementxe, Upain etxean. Dena dela, saiatzen jarraitzeko asmoa daukat. Ez dauka zentzurik debeku horrek, eta beste toki batzuetan ere hauxe bera ari da gertatzen, Arrasaten, esate baterako.

Ehizazalea ere ba ei zara...

Beti ibili izan gara eskopetarekin galeperrak, eperrak, usoak, eta ehiza txikiko piezak botatzen, baina hemengo jende gehiena bezalaxe. Afrikan ere izana naiz, 7 aldiz, safarietan. Oso atsegin dut. Baina, ez dezala inork pentsa afrikanista bat edo ehiztari handi horietako bat naizenik, inolaz ere. Abentura puntutxo hori da gustatzen zaidana, besterik ez.

Noiz arte jarraituko dugu Juan Zelaia lanean jo eta ke ikusten? Ez duzu erretiratzeko asmorik?

Erretiroa goikoak emango dit, baina ahal dudan bitartean lanean jarraituko dut. Zer da ba erretiratzea? Daukadan guztia baztertu eta geldi egotea? Ez nuke hori egiterik nahi. Neure burua ondo ikusten dudan bitartean...

Podiuma

Igone Elejalde |PARAPENTEZALEA|

Igone Elejalde aramaioarra duela bederatzi urte hasi zen parapentea praktikatzen. Aurten bigarren urtez lehiatu da eta denboraldi borobila burutu du Igonek: Euskadiko txapelketa absolutua eta Espainiakoa (nesken mailan) irabazi ditu. Era berean, bigarren urtez jarraian nesken liga eskuratu du.

Igone Elejalde.

"Parapentean ibiltzea jolas moduko bat da niretzat. Batzuetan hiru ordu igarotzen ditugu hegan egiten"

"Beharbada, gizonak emakumeak baino adoretsuagoak dira parapentean salto egiterakoan, baina berdintasun handia dago"

Euskadiko txapelketan gizonezkoei irabaztea lortu zenuen. Parapentean ez dago beste kirol batzuetan dagoen sexuen arteko diferentziarik?

Berdintasuna handiagoa da eta edozeinek irabaz dezake. Dena dela, nire ustez, gizonezkoak adoretsuagoak dira parapentean salto egiteko orduan. Hasieran, lehiaketetan, parte hartzeak ez ninduen erakartzen, baina, egia esan, oso giro ona egoten da eta lagun onak egiten dituzu. Euskal Herrian ere zale asko dago.

Espero zenuen aurten hain ondo ibiltzea?

Espainiako txapelketa Benasque aldean jokatu zen eta, inguru hori ondo ezagutzen dudanez, baneukan aurrealdean sailkatzeko itxaropenik. Euskadikoa uste baino alde handiagoarekin irabazi nuen.

Zenbateko altuera hartzen duzue?

Ezohiko egunetan 600 metrora ere ibili gaitezke baina normalena 100-200 metro bitartean hegan egitea izaten da. Eguraldiaren arabera izaten da hori. Udaberri-uda partea izaten da parapentean ibiltzeko sasoirik onena.

Non entrenatzen duzu? Lehiaketak non antolatzen dira?

Arronan, Zarautz aldean, Oñatin..., baina gehienbat Nafarroan ibiltzen naiz, Arangoiti inguruan. Onena hainbat tokitan entrenatzea da. Pirinioetan eta Avila aldean toki benetan zoragarriak daude eta 3.000 metro inguruko altueratan ibiltzeko aukera daukazu. Hala ere, lanagatik, ez daukat entrenatzeko nahi beste denbora. Bestalde, lehiatzeko orduan, Estatu osoan izaten diren lehiaketetara joaten ahalegintzen naiz. Aurten, udan, Alemanian ere izan nintzen, Europako txapelketan, eta ikasteko ondo etorri zitzaidan, nahiz eta eguraldi txarra izan. Esperientzia polita izan zen.

Parapentearekin hegan egitea gozamena izan behar da...

Bai, oso sentsazio atsegina da. Kontuz ibili behar da, baina polita eta dibertigarria da parapentean ibiltzea. Jolas moduko bat da niretzat. Haize beroak eta laminalak (orografiaren oztoporen batean jo eta gora egiten dutenak) aprobetxatzen jakin behar da goian ahalik eta denbora gehien egiteko. Esperientziarekin ikasten da parapentearekin ibiltzeko haize egokiak non dauden bilatzen. Batzuetan, zortea dugunean, hiru ordu ere igarotzen ditugu parapentearekin hegan egiten.

E. M.

ATZOKO TXAPELDUNAK

Bixente Etxeandia
Futbolaria

UDA elkarteko presidentea Alavesek lehen mailan izan duen golegile nagusia dugu oraindik ere. 1954an igoera lortu ondoren, bi denboralditan lehen mailan aritu ziren gasteiztarrak eta Etxeandiak 21 gol egin zituen. Lehenbiziko denboraldian Valentziari 7-1eko emaitzarekin irabazi zioten Mendizorrotzan. Pasieguito, Puchades edo Quincocesek Valentziarekin jokatzen zuten orduan, eta Etxeandiak gol bat sartu zuen partidu hartan. Beti ere 8 zenbakiarekin jokatu zuen Alavesen, eta guztira zazpi denboraldi eman zituen atxabaltarrak babazorroekin. Lehen mailan egin zuten 2. denboraldian Real Madrilek Alaveseko Berasaluze atezaina fitxatu zuen eta Etxeandiaren ustez hori erabakiorra izan zen mailaz jaisteko, Debako atezaina taldeko oinarrietako bat baitzen.

Alaves utzi ondoren, lehen mailan zegoen Granada taldearekin fitxatu zuen, baina Jaenen aurkako partidu batean, denboraldi hasieran, Campo de la Victoria futbol zelaian, lesio larria izan zuen Etxeandiak eta urte osoa jokatzeke eman zuen. "1958an, Etxebarren Realeko medikuarekin errekuperatzen ari nintzela, Realarekin entrenatzen hasi nintzen. Salvador Artigas zen txuri-urdinen entrenatzailea eta azkenean Realak fitxatu egin ninduen. Hala ere, ez nuen donostiarrekin debutatzerik izan, Juan Arregi Alaveseko presidentea jokalari eske etorri zelako Realarengana; Elias Kerejeta, Gabiola eta hirurok utzita joan ginen". Alavesen 2. mailan jokatu zuen berriz ere eta jarraian Huelva, Sestao edo Mirandes taldeetan jardun zuen. 35 urterekin erretiratu zen eta entrenatzaile titulua eskuratu zuen 1968an. Besteak beste, Aretxabaleta, Bergara eta Arrasateko taldeak entrenatu zituen. Aretxabaletarekin 3. mailarako bost igoera ligaxka jokatu arren, ez zuen behin ere igoera lortu. 1964an tailer txiki bat ireki zuen, baina 1979an itxi egin behar izan zuten krisiak jota. Ondoren, gimnasiako irakasle izan zen Aretxabaletako Eskola Profesionalean, 1997an, 66 urterekin, erretiratu zen arte. Azken zazpi urteetan UDAko presidentea izan da. Alaves taldeko bazkide eta akzionista ere bada. Dudarik gabe, jokalari zein zale gisa gasteiztarren garairik onenak bizi izan ditu Etxeandiak.

EDU MENDIBIL

Nire Pronostikoa

JON ODRIOZOLA / Txirrindularia

Lau t´erdiko finala oso parekatua ikusten dut eta edozeinek irabaz dezake nire ustez. Eugik zein Nagorek irabaztea ez litzateke sorpresa izango niretzat, biak ere oso ondo ibili baitira orain arteko partiduetan. Hala ere, pronostikoan Eugiren alde egin dut. Futbolean, Realak ez du partidu erraza izango zapatuan Villarrealen aurka baina Periko Alonsoren mutilek erreakzioa beharrezkoa dute zulotik irteteko. Ea zaletuok behingoz garaipenarekin eta taldearen jokoarekin gozatzeko aukera daukagun, nahiz eta Villarreal ondo ari den jokatzen. Osasunak Numanciari nagusituko zaiola uste dut eta Valladolid eta Athleticen arteko partidua berdinketarekin amaitu daiteke.

Astebukaera honetako partidak

A/	Eugi	22	Nagore	19
B/	Osasuna	2	Numancia	0
C/	Reala	3	Villarreal	0
D/	Valladolid	1	Athletic	1

Euskadiko karate txapelketa jokatuko da zapatuan Bergaran

Kadete eta junior mailako karatekak batuko dira

E. M.

Zapatuan, abenduaren 16an, XI. Euskadiko Karate Txapelketa jokatuko da Bergarako Kiroldegian 16:00etatik aurrera, eta kadete eta junior mailako 200 karateka inguruk hartuko dute parte. Joan zen urteko ekitaldian bezala, Bergarako Shotokan taldeak Udaleko Kirol Zerbitzuaren laguntzarekin antolatu du zapatuko txapelketa. Josean Iñarra dugu Shotokan taldeko entrenatzailea eta infantil mailatik senior bitarteko Gipuzkoako karate hautatzailea. Berak azaldu digunez, hainbat aldaketa izango dira txapelketan: "*katetan* arauak aldatu egin dira. Orain arte bost epaile izan dira eta bakoitzak bere puntuazioa ematen zuen. Hemendik aurrera, hiru egongo dira eta bikoteka irteten diren karateken artean bat nabarmenduko dute, ikusleek argiago izan dezaten nor den aurrera egiten duena". *Katetan*, besteak beste, teknika, erritmoa, potentzia, edota sinkronizazioa hartzen dira kontuan.



Josean Iñarra. BENITO CANTERO

Bestalde, *kumitetan*, elkarren arteko borroketan, berritasunak izango dira. Kadete mailan, debekatuta egongo da eskuarekin buruan jotzea. Buruan ostikoak ematea eta aurkaria lurrera botatzea hiru punturekin sarituko da eta ostikoak gorputzean eta eskuekin bizkarrean emandako kolpeak bi punturekin.

Jorge Sanchez, Goizeder Caballero, Mikel Zabarte, Patricia Morales eta Garbiñe Tera arrasatearra izango da Debagoieneko ordezkariak.

P I N T U R A E R A K U S K E T A

Zubiaga

2000ko abenduaren 15etik
2001eko urtarrilaren 7ra

HARRESI ARETOA
Iturriotz, 35 • ARRASATE

RAFAEL FERNANDEZ ZUBIAGA

1933ko ekainaren 9an jaio zen.

Txikitatik izan zituen ageri-agerian dohain artistikoak.

Oso ezagupen tekniko gutxi izanik, bere eskualdeko txoko eta paisaiak marraztu zituen, eta inguru horietako batean bere bizitza artistikoko pertsonarik garrantzitsuena ezagutu zuen, garai horretan Urduñako paisaiak pintatzen zebilen Bay-Sala pintorea, hain zuzen ere.

Hamazazpi urte zituela, berriz, bakarkako bidea hartu zuen. Penintsula osoan eta Afrikaren iparraldean bidaiatu zuen, paisajista gisa zituen dohainak lantzeko. Horrela, bere lanaren protagonista nagusiak kolorea eta argia dira.

1956an Arrasatera etorri zen bizitzera eta alde batera laga zuen bere karrera artistikoa, eratu berri zuen negozioan buru-belarri sartu zelako.

90eko hamarkadaren amaiera aldera, berriro ere astoari heltzea erabaki zuen: maite eta gogoratzen dituen Euskal Herriko paisaiekin berriro bat egin, hainbat herrialde bisitatu... Pintzelkada berri bakoitzak artista-arima indarberritua islatzen du, naturaren elementu bizienak argi, kolore eta perspektibaz irudikatuz.

Rafaelek beti izan du kemena eta hobetzeko grina. Horri bere heldutasuna eta perfekzio teknikoa gehitzen badizkiogu, bere lanak harritu egingo gaitu zalantzarik gabe.

Orain, Arrasate aukeratu du bigarren aro artistikoko lehen erakusketa egiteko, batetik, herri horretan bizi izan dituelako bere bizitzako unerik garrantzitsuenak eta, bestetik, Arrasaten bertan jaso duelako bere bizitza artistikoarekin jarraitzeko senitarteko eta adiskideen laguntza.

ORDUTEGIA

Lanegunak
18:00etatik 20:00etara

Zapatu eta jaiegunak
12:00etatik 14:00etara eta
18:00etatik 20:00etara

Eta orain, prest al zaude?

Clio RENAULT
world wide car

MECA
ARRASATE Tel.: 943 71 24 72 • BERGARA Tel.: 943 76 40 68



Aramaio

ARAMAIOKO UDALA
ARABA

Suitza txikia, paradisu handia.

Bisita gaitzazu!

Goienka 2a

Egubakoitza / 2000ko abenduaren 15a

Kultura eta Aisialdia

Abenduaren 15etik 22ra

EUSKADI GAZTEA-KO MAKETA LEHIAKETAN

Entzuleen Saria

Bigarrena (Arrasate) ANGER

Hirugarrena (Arrasate) OFFSET

Bosgarrena (Aretxabaleta) SERIAL NUMBER

Asier Leoz Euskadi Gaztea-ko esatariak azaldu digunez, "entzule bakoitzak hiru talde bozkatzen ditu. Horrela, boto guztiak talde bakarrari ematea saihesten da, gehienetan taldeko lagunak-eta izaten baitira bozkatzeko deitzen dutenak. Gero, botoak zenbatu eta maketa lehiaketako bigarren saria (entzuleen saria) eskuratu duten hiru taldeak izendatzen dira".

Arrasateko bi taldek eskuratu dute saria: Offset eta Anger. Bi talde horien bina kantu bilduko ditu Euskadi Gazteak aurtengo maketa lehiaketako CDan.

Baina, Aretxabaletako talde bat ere egon da lehiaketan: Serial Number. Hauek èrritmo gogorrak landu arren, tekno kutsua ere badute; hala ere, oinarrian gitarra doinuak nabari dira.

Euskal talde berriak ezagutzera emateko aukera izaten da Euskadi Gazteak antolatzen duen lehiaketa. Aurten, hamargarren aldiz egin dute.

GOIO ARANA

Erdiko kale, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94

Ibai-arteren bazkide
ibai-arte

Musika

Anger, Offset eta **Serial Number** talde debagoiendarrek irabazi dute Euskadi Gaztea-ko Entzuleen Saria

Musika talde berrien ordua

EH Sukarra, Sorotan Bele, πlt, Fundiziyue eta Zea Mays izan dira, besteak beste, Euskadi Gaztearen Maketa Lehiaketako irabazleetako batzuk. Aurten, El Colunpio Asesino iruñearrek irabazi dute.

Urtarrilean aterako da aurtengo CDa eta 1.000 kopiatik gora egingo dituzte. Talde bakoitzari 50-70 kopia ematen dizkiote; Euskadi Gaztea-ko entzuleen artean ere banatzen da eta Euskal Herriko disko etxeetara ere zabaltzen dituzte; azken batean, hori da lehiaketaren filosofia, euskal taldeak ezagutzera ematea, alegia. Hala ere, maketa lehiaketako irabazleek gaztelaniaz abesten dute eta hori dela eta, Anger, Offset eta Serial Number taldeetako kideak ez daude batere konforme. Entzuleen Saria aukeratzeko modua ere ez dute oso egoki ikusten: "Lagun asko baldin badituzu, boto gehiago batzen dituzu", esaten dute.

Gazteegiak direla, ez direla ezagunak eta bestelakoak ere entzun dituzte hiru taldeetako ordezkariek disko etxeetara jo dutenean. Zaila ei da musikan sartzea, baina badute esperientziarik. Anger, esaterako, 1997ko irailean sortu zuten hiru lagunek. Offset, orain dela bi urte. Serial Number litzateke "gazteena", izan ere, adinean helduenak izan arren, "proiektuarekin urtebete" daramate.

Doinu gogorrak egiten dituzte, baina bakoitzak bere kutsua ematen dio. Angerrekoek gorrotoa islatzen dutela diote; Offsetekoek bizitzari kantatzen diote eta Serialekoek, aldiz, sistemaren aurka daudela diote, *cross over* eta tekno-metal doinuen bitartez.

MARIJO DEOGRACIAS

Anger

Gizarteari kritika egiten diotela esaten dute, "baina sentimenduetatik abiatuta". Lehenengo musika egiten dute eta gero idazten dituzte kantuak. Hemeretzi minutuko maketa (bost kantu) grabatu dute Shot-en: *Zuhaitz lehorra ereiten*. Euskal Herriko musikan denetarik dagoela diote, baina "jendeak ez du denetarik entzuten. Guk hainbat musika mota entzuten dugu eta horien arteko nahasketa bat egiten dugu". Musika gogorra egiten dute eta hori abestietan islatzen da: *"Zure barruan gorrotoa; zure barruan asaldatzen zaituen gauza asko daude; baina fal tsukeriak berotzen zaitu..."*.

Hurrengo kontzertua hilaren 29an, Bergaran. Harremanetarako: 943 790 564 (Iago).

Offset

Boskote honek ez ditu 'etiketa' kontuak atsegin, baina "trash-metal edo metal gogorra egiten dugu. Denetarik entzuten dugu, batez ere, talde amerikarrak". Eta gogortasun hori euren musikan eta kantuetan islatzen da: *"...labanaren distira zure begietan; zure odolak bidea busti zuenean..."*. Hala ere, maketako bederatzi abestien artean tekno doinuak eta bestelako kantuak ere sartu dituzte, sexuaz eta naturaz aritzen direnak, esaterako. Euren ustez, euskal musikan denetarik dago, "gazteek estilo guztietako doinuak lantzen dituzte, batez ere, gogorrak".

Hurrengo kontzertua hilaren 29an, Bergaran. Harremanetarako: 943 792 485 (Jon).

Serial Number

Musika "era binarioan" egiten dute. Euren lanak *Bat eta zerozko mundua* du izena. Gitarrak, bateriak, tinbalak eta teknologia uztartzen dituzte. "Ez dugu pentsatzen jendearen gustuetan musika egiterakoan"; hala ere, ez dira ados jartzen euren kantuen estiloa definitzerakoan, "eta ez da 'etiketa' kontuarengatik, baizik eta bakoitzari modu batekoa iruditzen zaiolako". Ez da erraza izango kantuak irakurriz gero: *"Begi modifikatuez, sentsore neurotoxikoez, gizaki mekanikoak, sistemaren hautamena..."*.

Hurrengo kontzertua urtarrilaren 4an, Bergaran. Harremanetarako: 636 253 023 (Josu). Posta-e: serialnumber@mixmail.com

"Heavya berpizten ari da"

Guk egindako zerrendaz hasi ginenean, entzuleek egindako zerrendari ere ekin genion. Arrakasta ikusita, Maketa Lehiaketan ere Entzuleen Saria antolatu genuen. Oso bitxia da entzuten ditugun maketetatik guri bat gustatzea eta entzuleek beste bat aukeratzea. Argi izaten dugu euskal taldeak ezagutzera emateko gaudela; hala ere, oraindik maketa lehiaketa ezagutzera ematen ari denez, lehiaketa bera handi egingo duten taldeak saritzea nahi dugu.

Heavy doinuak berzpiten ari dira, baina, hala ere, ohikoa da metala gustuko duen batek Celin Dion entzutea, esaterako. Baina, hori bai, roczaleak direnak gu baino askoz ere rockzaleagoak dira. Rockak eta elektronikak bat egin dute. 90eko aldaketarik nagusiena dela esango nuke.



Joseina Etxeberria, Euskadi Gaztea-ko esataria.

Eskultura

Martzial Agirre eskulturgilea

Martzial Agirre etxera itzuli da

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, irekiko dute Martzial Agirre eskultore bergararraren erakusketa. Aurten ehun urte bete dira Martzial Agirre hil zela eta aitzakia horrekin ekarri dituzte bere lanak Bergarako Udaletxera, hilaren 28a arte.

Pio IX, Galiarra Hilzorian eta Inazio Etxaideren eskulturez gain, hainbat margolanek osatzen dute erakusketa, baina badira bereak izan ziren beste objektu batzuk ere.

Martzial Agirre Bergaran jaio zen 1843an. Aita ere eskultorea zen eta Agirrek txikitatik erakutsi zuen eskulturarako berezko sena.

Napoliko jokalaria (1870).

1864an Erromara joan zen ikastera eta artista-lagun asko egin zituen han, hala nola, Palmaroli, Alejo Vera eta, batez ere, Eduardo Rosales. Madrildarraren lagun mina izan zen. 1875ean Donostiara joan zen bizitzera, handik eskaera asko jaso zituen eta.

Lan oparoa utzi zigun Agirrek, baina aipatzekoak dira, batik bat, Loiolako San Inazioren eskultura, Txurruka Itsasgizonarena, Okendo Almirantearena, Donostiako Jauregi Probintzialeko Frisoa edo Bergarako epaitegian zaindari dagoen Justizia edo Doña Justarena.

AINTZANE IRIZAR

Zarzuela

Izaskun Murgia taldea

'La tabernera del puerto' zarzuela antzeztuko du mondragoetar talde batek zapatuan eta domekan: Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak, hain zuzen. Ia urtebete eman dute 50 lagunek zarzuela hori prestatzen. Orkestran, berriz, 28 musikari arituko dira. Zapatuan eta domekan, 19:30ean, Arrasateko Amaian.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2000ko abenduaren 15a

Abendua: 15-22

Edu Mendibil

Antzerkia

ARRASATE> Taun-Taun taldearen *Txio-Txioka* antzezlana zapatuan, hilak 16, Gazteluondoko kiroldegian, 17:00etan.

BERGARA> Kukubiltxo taldearen *Txirrikiz* antzezlana domekan, hilak 17, Udal Pilotalekuan18:00etan.

Musika

ARETXABALETA> Musika Eskolako txistularien kontzertua domekan, hilak 17, Udaletxe zaharrean, 13:00ean. Aurretik kalejira egongo da.

> **Musika Eskolako** ikasleen kontzertuak abenduaren 18tik 22ra, Leizarra Musika Eskolan, 18:00etan.

> **Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren** kontzertua abenduaren 22an, Elizan, 20:00etan.

ARRASATE> La tabernera del puerto zarzuela abenduaren 16an eta 17an, Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak salgai Arrasateko Zabaleta lurrindegian eta Monte tabernan, eta Bergarako Guria tabernan. 2.000/2.500 pezeta.

> **Extremadurako Gabonkanten IX. Jaialdia** zapatuan, hilak 16, Arrasateko Merced ikastetxean, 16:30ean.

> **Saxofoi kontzertua** martitzenean, hilak 19, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

> **Txistu kontzertua** eguenean, hilak 21, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

ANTZUOLA> Bergarako Musika Eskolako ikasleen emanaldia abenduaren 22an, zine aretoan, 19:00etan.

BERGARA> Musika Eskolako ikasleen kontzertua egubakoitzean, hilak 15, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

> **Freak XXI eta TTLT** taldeak egubakoitzean, hilak 15, Jam aretoan, 22:00etan. Sarrera, 1.200/1.500 pezetan.

> **Errenteria Musikal** Ganbera Orkestraren kontzertua zapatuan, hilak 16, Santa Marina elizan, 19:30ean.

> **Los Suaves eta artista gonbidatua** zapatuan, hilak 16, Jam aretoan, 22:00etan. Sarrera, 1.200/1.500 pezetan.

> **Discipulos de Dionisios** eta **Obligaciones** zapatuan, hilak 16, Gaztetxean, 22:30ean.

> **Gorka, Pablo, Moto** eta **Chusso** disko jartzaileak zapatuan, hilak 16, Go-Jam aretoan 1:30ean.

ESKORIATZA> Flitter, MPB eta Klineks taldeen kontzertua zapatuan, hilak 16, pilotalekuan, 22:30ean.

OÑATI> Piztiak taldea egubakoitzean, hilak 15, Gaztelekuan, 23:00etan. 500 pezeta.

ELGOIBAR> Tapia eta Leturia laukotea eta Pomada taldea egubakoitzean, hilak 15, Herriko Zineman, 22:30ean.

DURANGO> Rockazoka Durangoko euskal liburu eta diskoen azokako karpan zapatuan, hilak 16, 18:00etatik 2:45etara, ondoko taldeekin: Bat Biten, Harlax, Fundiziyue, Lisabo, Buitraker, Bide ertzean, Sen, Idi Bihotz, Eraso!, Ekon, Txapelpunk eta Jousilouli. Sarrerak: 500/800 pezeta.

Erakusketak

ARRASATE> Rafael Fernandezen margo erakusketa Harresi aretoan urtarrilaren 7a arte.

> **Asun Balzolaren** *Ilustrazioa ezagutu* erakusketa Monterron jauregian urtarrilaren 5a arte.

> **Rafael Fernandezen** margo erakusketa San Andres auzoko Toki-Eder kafetegian.

BERGARA> Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarraren *Herri baten argia* erakusketa Kultura Etxean, urtarrilaren 1a arte.

> **Martzial Agirre** eskultorearen mendeurrenaren inguruko erakusketa, osoko bilkuren aretoan. Udalak eta Filatelia eta Numismatika taldeak antolatuta.

Lehiaketak

ARRASATE> XIV. Arrasate Lehiaketak: ipuina, poesia, bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati-erreportajea. Mugaeguna: otsailaren 5a. Argibideak 943 77 12 28 zenbakian.

BERGARA> Amodiozko gutunen IX. Lehiaketa, Jardun elkarteak deituta. 1986an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 8a izango da. Argibideak 943 76 08 19 telefono zenbakian.

PORTUGALETE> XV. Komiki Lehiaketa. Nahi duten guztiek, inolako mugarik gabe, har dezakete parte, hala banaka nola taldeka, hau da, gidoilariak eta marrazkigileak batera dihardutela. Gaia librea izango da eta pertsonaia originalak izan beharko dira. Bi kategoria bereiztuko dira, zuri-beltza eta kolorekoa eta errotuluak euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzi daitezke. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaituko da. Argibide gehiago Portugaleteko Udaleko Kultura Sailean, 94 472 92 20 telefono zenbakian.

Ikastaroak

BERGARA> Euskara suspertzaile ikastaroa, Jardunek eta Bergarako Udalak antolatuta, aisialdi taldeko partaideei, euskara elkarteko kideei eta euskara eta aisialdiaren inguruan interesa dutenei zuzenduta. Eskolak urtarrilaren 13an, 20an, 27an eta otsailaren 3an izango dira Bergarako Udal Euskaltegian. Argibideak Jardun elkartean, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

Deiak

ANTZUOLA> Antxon Agirre Sorondok idatzitako *Antzuolako larru ontzea* liburuaren aurkezpena domekan, hilak 17, Udaletxean, 12:30ean.

ARETXABALETA> Odol ateraldia abenduaren 18an, Osasun Etxean, 16:30etik 20:00etara.

ARRASATE> Palestinaren inguruko mintegi-lantegia zapatuan, hilak 16, Jaizale elkartean, 10:00etatik 14:00etara, Komite Internazionalistak taldeak antolatuta.

> **AEK**-k deitutako kontzentrazioa egubakoitzean, hilak 15, Herriko Plazan 19:30ean.



ARGAZKI ERAKUSKETA.

Medicus Mundi erakundeak Oñatin antolatutako sentsibilizazio kanpainaren barruan, *Afrikaren kolorea* izenburuko argazki erakusketa ikusgai dago Gaztelekuan abenduaren 16a arte, zapatuan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Zapatuan ipuin kontalaria izango da Udaletxe aurrean, 12:30ean (gaztelaniaz) eta 17:30ean (euskaraz), eta gobernuz kanpoko erakundeen eta Oñatiko kooperazio taldeen azoka irekiko da plazan.

URKIOLA
Guztia
%30
ESKAINTZA
Bidekurutzeta, 42 • Tel./Fax: 943761648 • BERGARA

Santamasak Arrasaten

Azoka, ganadu feria, baserriko antzinako tresnen erakusketa, artisauen feria...
Egubakoitzean, hilak 22.

BERGARA> AEK-k "AEK aurrera, euskara aurrera, erasorik ez" lemapean deitutako kontzentrazioa abenduaren 15ean eta 22an, San Martin plazan, 19:30ean.

>Pol-Poleko Mendia Bizirik taldeak domekarako, hilak 16, Mendejur (Araba) inguruko ekosistemaren hegaztiak ezagutzeko irteera antolatu du. Parte hartu nahi dutenak Pol-Poleko bulegoaren parean elkartuko dira 8:30ean. Ez dago aurrez izena eman beharrik.

>FISC gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, zapatuan, hilak 16, Bidezko merkataritza denda San Martin plazan, 10:00etatik 14:00etara.

>Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, Juantxo Diezek *Irakek jasaten ari duen enbargo genozida* izenburuko hitzaldia emango du eguaztenean, hilak 20, Kultura Etxean, 19:30ean.

>1940an jaiotakoen afarira joandakoek 15.000 pezeta jokatzen dute Gabonetako loterian, 64.583 zenbakiarekin.

OÑATI> Mendi irteera. Ondarroa-Kalamendi-Ea. Irteera: domekan, hilak 17, 8:00etan. Izen-ematea Aloña tabernan egin daiteke.

> Diapositiba emanaldia: *Danubioa zeharkatzen*, Angel Cuerdoren eskutik, martitzenean, hilak 19, Kultura Etxean (Bidebarrietan), 19:00etan.

> Euskal Liburu eta Disko Azoka zapatuan Herriko Plazan, 16:30etatik 21:00etara, eta domekan 12:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara Gaztelekuan, Laixan elkarteak antolatuta, Txanda dendarien elkartearen laguntzaz. Pello Añorga ipuin kontalaria izango da domekan Gaztelekuan, 12:30ean. Film laburren emanaldia eta Iosu Garairen diapositibak eskainiko dira domekan Gaztelekuan, 19:00etatik aurrera.

Jaiak

ARRASATE> Santamasak. Eguenean, hilak 21, Santamasetako txerriaren aurkezpena 19:00etan, Akelarre taldearekin dantzaldia plazan 23:00etan eta zezen suzkoa gauerdian. Egubakoitzean, hilak 22, goizean azoka Herriko Plazan, ganadu feria Laubide plazan, artisauak Jokin Zaitegi plazan, baserriko antzinako tresnen erakusketa Garibai etorbidean eta herri bazkaria Uarkapen, 14:30ean. Izen-ematea ohiko tokietan.

Zinema

ARRASATE / ALAI ZINEMA

Los ángeles de Charlie
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena (ikuslearen eguna): 19:00, 21:30.

BERGARA / NOVEDADES

O brother!
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena (ikuslearen eguna): 19:30.

Holy smoke
Eguena, zine-kluba: 20:00.

OÑATI / SANTANA

Los ángeles de Charlie
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Guerreros de la virtud
Domeka: 17:00.

Celebración
Eguena, zine-kluba: 20:00.

EIBAR
UNZAGA

El sexto día
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

RIALTO

De profesión solteros
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

X-men
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

Baloia
Domeka: 16:30.

La ciudad
Eguena, hilak 21: 21:30.

ELORRIO / ARRIOLA

O brother!
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Auzoko animaliak
Domeka: 17:00.

El mar
Eguena,zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA / BAZTARTXO

El exorcista
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 22:00.

DURANGO / ZUGAZA

Snatch, cerdos y diamantes
Zapatua: 19:00, 22:00.
Domeka: 19:00, 22:00.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Martitzena (ikuslearen eguna):: 19:00, 22:00.

GASTEIZ
GURIDI

Dinosaurio
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 7:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Lo que la verdad esconde
Egubakoitza: 17:00. 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua:17:00. 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Manuelita
(Marrazki bizidunak)
Egunero: 17:30.

El sexto día
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Otoño en Nueva York
Egubakoitza: 20:00. 22:30, 01:00.
Zapatua:20:00. 22:30, 01:00.
Domekatik eguaztenera: 20:00, 22:30.
Eguena: 22:30.

El grinch
Egubakoitza:17:30. 20:00. 22:30, 01:00.
Zapatua:17:30. 20:00. 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Los ángeles de Charlie
Egubakoitza:17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 19:45, 22:45.

Nacional 7
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMAK

Besos para todos
Egubakoitza:17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka:16:00. 18:15, 20:30. 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

Lo que la verdad esconde
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:30, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka:17:15. 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El grinch
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:30, 01:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka:16:00. 18:15, 20:30. 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Dinosaurio
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:30, 01:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka:16:00. 18:15, 20:30. 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Scary movie
Eguabakoitza: 17:30, 20:00. 22:30, 01.15.
Zapatua: 16:30. 18:30, 20:30. 22:45, 01.15.
Domeka:16:30. 18:30, 20:30. 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Otoño en Nueva York
Eguabakoitza: 17:30, 20:00. 22:30, 01.15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30. 22:45, 01.15.
Domeka:16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik egunera: 17:30, 20:00, 22:30.

Banpiro txikia
Astebarruan: 17:15.
Zapatu eta domeka: 17:15, 18:30.

Bailame el agua
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

Harry, un amigo que os quiere
Egubakoitza: 20:00, 22:30, 01:15.
Zapatua: 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

Ed Gein
Egubakoitza:17:15, 20:00, 22:30, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMA

El pequeño vampiro
Astebarruan: 17:30.
Zapatu eta domeka: 16:15, 18:00.

La comunidad
Egunero: 20:00, 22:30.

SAMANIEGO

Persiguiendo a Betty
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Scary movie
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Ametsen lapurra
(Marrazki bizidunak)
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

You're the one
Egubakoitzetik eguenera: 19:45, 22:30.

Los ángeles de Charlie
Egubakoitzetik astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Martitzena: 17:00, 22:30.
Eguaztena: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 19:45, 22:30.

AZUL

La perdición de los hombres
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 18:30.
Martitzena: 18:30,
Eguaztena: 18:30.
Eguena, hilak 21: 17:30, 22:30.

Progeny
Astelehena: 21:00.

Los caballeros de la mesa cuadrada
Martitzena: 21:00.

Gummo
Eguaztena: 21:00.

Terror en la red
Eguena, hilak 21:20:00.

Dancer in the dark
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 18:30, 21:00.



O BROTHER!
Zuzendaria: Joel Coen. Aktoreak: George Clooney, John Turturro. > 13 urte
Coen anaien azken filma 1930eko hamarkadako Estatu Batuetan girotuta dago, Homeroren *Odisea* klasikoan oinarriturik. Mississippi sakonean hiru presok kartzelatik ihes egitea lortuko dute eta euretako batek urteetan gordetako altxorra aurkitu nahiko du. Bidean, pertsonaia benetan bitxiak aurkituko dituzte.



HOLY SMOKE
Zuzendaria: Jane Campion. Aktoreak: Harvey Keitel, Kate Winslet, Julie Hamilton. > 18 urte
El piano filmeko zuzendariaren azken lana Veneziako jaialdian aurkeztu zen, eta era guztietako kritikak jaso zituen. Neska gazte bat (Kate Winslet) Indian zehar bidaiatzen ari da eta bera baino zaharragoa den gizon misteriotsu bat (Harvey Keitel) ezagutuko du. Neskaren familiak sekten aurkako borrokan ari den gizon bat kontratatuko du erlazio horri amaiera topatu nahirik...

Hies Berri
943 79 26 99

ORTO + LAGUN
ORTOPEDIA
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 89 34
• Kortseak eta aparatu zuzentzaileak
• Plantillak
• Belaunetakoak, orkatilekoak, eskumuturrekoak
• Gerrikoak

Altuna
Baserriko tresnak
Pabeiloi berria Bergarako Industrialdean.
Tel. 76 12 11

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Santa Teresan etxebizitza salgai. 70 m². Sukalde-jangela bi gela, egongela, komuna, *hall*-a , terraza eta sotoa. Berogailuarekin eta berriztuta. Sukaldea hornitua dago. 943 79 87 79 edo 943 79 81 27.

Bergara. Ibargarain etxe berria salgai. 943 76 23 31.

Gasteiz. Etxebizitza salgai. Sukaldea, bi logela, egongela, bainua eta komuna. 655 73 16 05.

Aretxabaleta. Erdialdean pisua salgai. 60 m². Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. 943 79 82 61.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 4 logelako etxebizitza ikasleentzat alokagai. 943 76 25 82 eta 943 79 98 86.

Arrasate. Erdiko Kalen ikasleentzako pisua alokagai. Tel.: 943 79 12 20. Dora.

Bergara. Etxeko logelak alokatzen ditut. Sukaldea erabiltzeko aukera. 40.000-50.000 pezeta hileko. 943 76 15 40.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi neska arrasatearrek (ez ikasleak) pisua alokatuko lukete. 630 45 12 79.

Arrasate. Pertsona heldu batek pisua behar du errentan hartzeko. 943 79 61 72.

Debagoienean alokairuzko etxebizitza behar dut. 943 71 61 89. Juan.

Antzuola. Urtebeterako pisua behar dugu alokairuan. 943 75 21 00. Gotzon.

Arrasate. Pisua hartuko genuke errentan. Senar-emazteak gara. 945 44 52 77.

Aramaio. Eskoriatzan edo Aretxabaletan pisua behar da errentan hartzeko . 629 92 48 82.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxebizitza bila nabil, beste norbaitekin bizitzeko. 943 65 04 95. Gauez deitu.

Bergara. Beste norbaitekin bizitzeko prest nago. 943 76 02 46. Arrate.

Jaca. Eski denboraldirako, beste bi pertsonarekin edo, etxebizitza osatuko genuke Jacan. 43 79 68 04.

Arrasate. Pisua osatzeko neska behar da Zigarrolan. 613 82 17 23.

2/ GARAJEAK

201. SALGAI

Bergara. Garajea salgai Bolun. 943 76 04 39.

Bergara. Garajea salgai San Lorentzon. Prezio egokia. 943 76 35 74.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia alokagai Larrea auzoan. Interesatuek deitu: 943 79 69 41.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Irala kalean lokala errentan. 70 m². 943 76 51 94.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde batek lokala behar du alokatzeko. Merkea izan dadila. Tel.: 943 79 26 19. Mikel.

Bergara. Gazte talde batek lokala hartuko lukete alokairuan. Merkea bada hobeto. 626 95 21 02.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Neska eta mutila prest edozein lanetan aritzeko. 600 600 531.

Arrasate. Neska prest umeak zaindu edo etxeko garbiketak egiteko. 943 79 94 20. Camila.

Arrasate. Taberna batean zerbitzari lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. 653 71 87 72.

Arrasate. Errotulazio lanetan esperientziaduna prest alor horretan lan egiteko. 653 71 87 72.

Arrasate. Mutil arduratsu bat hainbat lan egiteko prest dago: zerbitzari, pintore, nagusiak edo umeak zaindu, eta bestelakoak. 653 71 87 72. Juan.

Arrasate. Ingeles Filologia ikasten ari den mutil batek ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke. 943 71 47 85. Jon.

Bergara. Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 04 18. Itsaso.

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu umeak zaintzeko. 653 71 54 28. Carmen.

Esperientziadun neska dendaren batean egun erdiz lan egiteko gertu. 943 76 10 11.

Arrasate. Neska prest arratsaldez umeak zaintzeko edo orduka lan egiteko. 943 71 53 74.

Arrasate. Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 943 77 06 74.

Esperientziadun neska gertu egun erdiz dendaren batean lan egiteko. 943 76 10 11.

402. ESKAERAK

Bergara. Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakumea behar da. 943 76 03 37.

Arrasate. Esperientziadun estetizista behar da produktu naturalekin lan egiteko. 943 79 74 53. Oihana.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 02 02. 20:00etatik aurrera deitu.

Bergara. Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 03 37.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 03 33.

5/ IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK

Arrasate. Eskola partikularrak eta arazo eskolarrak tratatzen dira. 649 22 51 07.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Yamaha Aeros Checa motoa salgai. Egoera onean. 943 79 65 63.

Motoa. Egoera onean dagoen 50 zilindroko lurrorotako motoa erosiko nuke. 943 58 50 40 (20:00etatik aurrera).

Volkswagen Transporter salgai. Jantzita. 943 71 50 43. Gauez.

Opel Kadett 1.3 GLS zuria salgai. 139.000 km. Garajean gordeta egon da. 943 16 01 15.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

